ZARAUTZ – LUR, S.A.

2025EKO EKITALDIKO ETE-EN URTEKO KONTUAK

CUENTAS ANUALES DE PYMES DEL EJERCICIO 2025

Balance de Situación

Empresa 19251 - ZARAUTZ-LUR, SAU

Observaciones

Fecha listado 24/03/2026

Período De Enero a Diciembre

ACTIVO		2025	2024
A) ACTIVO NO CORRIENTE		**279.689,04**	**289.269,39**
II. Inmovilizado material			249,27
215	OTRAS INSTALACIONES	43.164,04	43.164,04
21500000	OTRAS INSTALACIONES	43.164,04	43.164,04
216	MOBILIARIO	17.325,83	17.325,83
21600000	MOBILIARIO	17.325,83	17.325,83
217	EQUIPOS PARA PROCESOS DE INFOR	3.398,49	3.398,49
21700000	EQUIPOS PARA PROCESOS DE INFOR	3.398,49	3.398,49
281	AMORT. ACUM. INMOV. MATERIAL	-63.888,36	-63.639,09
28150000	AMORT. ACUM. OTRAS INSTALACIO.	-43.164,04	-43.164,04
28160000	AMORTIZACIÓN ACUMULADA DE MOB	-17.325,83	-17.076,56
28170000	AMOR. ACUM. EQ. PROCS. DE INFO	-3.398,49	-3.398,49
III. Inversiones inmobiliarias		279.208,23	288.539,31
221	INVERSIONES EN CONSTRUCCIONES	311.036,16	311.036,16
22100003	2 VPO+TRASTEROS+GARAJES VISES	311.036,16	311.036,16
282	AMOR. ACUM. INV. INMOBILIARIAS	-31.827,93	-22.496,85
28210003	AMOR. ACUM. 2 VPO+TRASTEROS	-31.827,93	-22.496,85
V. Inversiones financieras a largo plazo		480,81	480,81
250	INVERS. FNAS. LP INSTRU. PATR.	480,81	480,81
25000000	INVERS. FNAS. LP INSTRU. PATR.	480,81	480,81
B) ACTIVO CORRIENTE		**346.327,25**	**344.888,39**
II. Deudores comerciales y otras cuentas a cob.		41.453,21	87.038,17
1. Clientes ventas y prestación de servicios		10.000,62	9.426,73
b) Cltes.ventas y prestación servicios CP		10.000,62	9.426,73
430	CLIENTES	10.000,62	9.426,73
43000003	COM.GAR.GURM(AYTO-PLAZ.S/DUEÑ	-2.960,00	-3.071,00
43000004	CLIENTES-ALQ.GARAJES GURMENDI	180,00	60,00
43000005	CLIENTES-ALQ.GARAJES GIP.48		120,00
43000009	DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA	6.675,62	5.179,66
43000011	EMAÚS FUNDACIÓN SOCIAL		1.033,07
43090000	CLIENTES, FACTURAS PDTES. FOR.	6.105,00	6.105,00
3. Otros deudores		31.452,59	77.611,44
440	DEUDORES	19.000,00	55.000,00
44000001	ORBE ETXANIZ, KENARI(SENTENCIA	19.000,00	55.000,00
470	HP, DEUDORA DIVERSOS CONCEPTOS	12.452,59	22.611,44
47000000	H.PÚBLICA, DEUDORA IVA A COMP.	12.452,59	22.611,44
IV. Inversiones financieras a corto plazo			2,08

Balance de Situación

ACTIVO		2025	2024
566	DEPÓSITOS CONSTITUIDOS A CORTO		2,08
56600001	DEPÓS. CONST. C/P TARJ.CORREOS		2,08
VI. Efectivo y otros activos líquidos equival.		304.874,04	257.848,14
570	CAJA, EUROS	69,92	0,38
57000000	CAJA, EUROS	69,92	0,38
572	BCOS E INS.CRÉD. C/C VIS.,EURO	304.804,12	257.847,76
57200000	KUTXABANK 1062917454	286.583,49	241.393,42
57200001	KUTXABANK 1064084279(GEST.GUR	18.220,63	16.454,34
TOTAL ACTIVO		**626.016,29**	**634.157,78**

Balance de Situación

PASIVO		2025	2024
A) PATRIMONIO NETO		**563.744,71**	**571.903,64**
A-1) Fondos propios		284.536,48	283.364,33
I. Capital		100.000,00	100.000,00
1. Capital escriturado		100.000,00	100.000,00
100	CAPITAL SOCIAL	100.000,00	100.000,00
10000000	CAPITAL SOCIAL	100.000,00	100.000,00
III. Reservas		-51.101,57	-50.347,27
112	RESERVA LEGAL	1.188,34	1.188,34
11200000	RESERVA LEGAL	1.188,34	1.188,34
113	RESERVAS VOLUNTARIAS	-52.289,91	-51.535,61
11300000	RESERVAS VOLUNTARIAS	-51.535,61	-50.898,59
11310000	INGS. Y GS. DE EJERCS. ANTER.	-754,30	-637,02
V. Resultados de ejercicios anteriores		-553.172,51	-554.712,35
121	RDOS NEGATIVOS EJS. ANTERIORES	-553.172,51	-554.712,35
12100008	RTDOS. NEGATIVOS EJERC. 2008	-7.869,08	-9.408,92
12100900	RESULTADO NEGATIVO 2009	-59.436,61	-59.436,61
12101000	RESULTADO NEGATIVO 2010	-19.069,84	-19.069,84
12101300	RESULTADO NEGATIVO 2013	-1.741,82	-1.741,82
12102100	RESULTADO NEGATIVO 2021	-465.055,16	-465.055,16
VI. Otras aportaciones de socios		786.884,11	786.884,11
118	APORTACIONES DE SOCIOS O PROPI	786.884,11	786.884,11
11800000	APORTACIONES DE SOCIOS O PROPI	786.884,11	786.884,11
VII. Resultado del ejercicio		1.926,45	1.539,84
A-2) Subvenciones, donaciones y legados recibidos		279.208,23	288.539,31
130	SUBVENCIONES OFICIALES DE CAPI	279.208,23	288.539,31
13000000	SUBVENCIONES OFICIALES DE CAPI	279.208,23	288.539,31
C) PASIVO CORRIENTE		**62.271,58**	**62.254,14**
I. Provisiones a corto plazo		3.040,72	
529	PROVISIONES A CORTO PLAZO	3.040,72	
52900000	PROV. A CP RETRIB. AL PERSONAL	3.040,72	
II. Deudas a corto plazo		3.120,00	26.362,09
3. Otras deudas a corto plazo		3.120,00	26.362,09
522	DEUDAS CP TRANSFO. SUBV.,DONA.		20.962,09

	PASIVO	2025	2024
52200000	DEUDAS CP TRANSFO. SUBV.,DONA.		20.962,09
560	FIANZAS RECIBIDAS A CORTO PLAZ	3.120,00	5.400,00
56000007	FIANZA ALQ.GARAJES GIPUZKOA 48		1.860,00
56000008	FIANZA ALQ.GARAJES GURMENDI	3.120,00	3.540,00
IV. Acreedores comerc. y otras cuentas a pagar		56.110,86	35.892,05
2. Otros acreedores		56.110,86	35.892,05
410	ACREEDORES POR PRESTACIONES DE	45.294,38	20.713,54
41000000	ACREEDORES VARIOS	489,64	
41000004	SOCIEDAD ESTAT. DE CORREOS Y T	141,58	119,09
41000014	CURENERGIA COMERC. ÚLT. REC.,	84,32	
41000041	ÚBEDA MARTÍN, PILAR (GUTMANN)	154,88	143,99
41000063	BABESA SUZAI, S.A.	5.756,34	
41000082	ADILUR S.L.P.	933,24	929,50
41000092	EIZAGUIRRE AROCENA, JOSÉ		-1.829,51
41000099	LIMPIEZAS BIOK GARBIKETAK, SL	1.255,55	548,64
41000101	IBERDROLA CLIENTES, S.A.U	53,02	14,40
41000106	AIZPURUA GURRUTXAGA, UGAITZ	18,95	
41000125	REGISTR. MERCS. DE GIPUZKOA CB	103,18	
41000189	UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO	922,26	922,26
41000196	CANON SISTEMAS DE OFICINA DE G	67,47	59,07
41000205	COMUN. PROP. ZUBEROA 10	1.069,92	1.749,60
41090000	ACRE.PREST.SVCS.FRAS.PTES RECI	34.244,03	18.056,50
466	REM.SISTE.APORT.DEFI.PTES PAGO	952,16	925,32
46600000	ELKARKIDETZA EPSV	952,16	925,32
475	HP, ACREED. CONCEPTOS FISCALES	6.459,38	10.939,38
47510000	HP, ACREED. RETEN. PRACTICADAS	6.459,38	10.897,57
47520000	HP,ACREED. IMPUESTO SOCIEDADES		41,81
476	ORGANI.DE LA SS.SS.,ACREEDORES	3.404,94	3.313,81
47600000	ORGANI.DE LA SS.SS.,ACREEDORES	3.404,94	3.313,81
T O T A L PATRIMONIO NETO Y PASIVO		**626.016,29**	**634.157,78**

Cuenta de Pérdidas y Ganancias

Empresa 19251 - ZARAUTZ-LUR, SAU

Observaciones

Fecha listado 24/03/2026

Período De Enero a Diciembre

		2025	2024
4. Aprovisionamientos		-57.162,51	-49.746,55
600	EJECUCIÓN DE PROYECTOS	-57.162,51	-49.746,55
60000005	EJECUCIÓN SALBERDIN		-563,09
60000006	EJECUCIÓN AMILLUBI	-29.282,00	-14.521,39
60000029	ESTUDIOS URBANÍSTICOS VARIOS	-14.691,51	-32,73
60000035	EJECUCIÓN ASTI		-8.646,94
60000040	NUEVO PAB.BRIGADA EN ABENDAÑO		-18.089,50
60000041	EJECUCIÓN SANTA CLARA	-2.420,00	-7.260,00
60000045	HEGOALDE-GENERAL		-632,90
60000047	EJECUCIÓN IÑURRITZA	-3.509,00	
60000048	EJECUCIÓN PLAZA MUNOA	-7.260,00	
5. Otros ingresos de explotación		327.097,57	272.752,78
740	SUBV.,DONA. Y LEGADOS EXPLOTA.	245.962,09	189.037,91
74000000	SUBV.,DONA. Y LEGADOS EXPLOTA.	245.962,09	189.037,91
755	INGRESOS POR SERVICIOS AL PERS	889,64	853,76
75500000	INGS. POR SERVS. AL PERSONAL	889,64	853,76
759	INGRESOS POR SERVICIOS DIVERSO	80.245,84	82.861,11
75900001	INGS. GESTIÓN GARAJES GURMENDI	12.321,00	12.136,00
75900002	INGS. ALQ.GARAJES GURMENDI	31.338,86	32.826,52
75900003	INGS. ALQ.GARAJES GIP.48	17.603,29	25.636,47
75900006	INGS.GEST.VIVS.SOC.ZUBEROA	6.584,79	600,94
75900007	ALQ. VIVS. ALDAPETA A DFG	12.397,90	11.661,18
6. Gastos de personal		-149.316,21	-144.672,02
640	SUELDOS Y SALARIOS	-110.565,22	-107.516,35
64000000	SUELDOS Y SALARIOS	-110.565,22	-107.516,35
642	SEGURIDAD SOCIAL A CARGO DE LA	-34.475,16	-33.052,68
64200000	SEGURIDAD SOCIAL A CARGO DE LA	-34.475,16	-33.052,68
643	RETRIB. LP MEDI.SIST.APOR.DEF.	-3.332,56	-3.238,62
64300000	RETRIB. LP MEDI.SIST.APOR.DEF.	-3.332,56	-3.238,62
649	OTROS GASTOS SOCIALES	-943,27	-864,37
64900000	GASTOS DE FORMACIÓN	-40,95	
64900001	SEGUROS PERSONAL	-902,32	-864,37
7. Otros gastos de explotación		-118.442,73	-136.964,51
621	ARRENDAMIENTOS Y CÁNONES	-776,32	-783,21
62100001	RENTING IMPRESORA	-776,32	-783,21
622	REPARACIONES Y CONSERVACIÓN	-157,99	-351,65
62200000	REPARACIONES Y CONSERVACIÓN	-157,99	-351,65
623	SERVICIOS PROFESIONALES INDEP.	-19.666,42	-64.593,38
62300000	SERVICIOS PROFESIONALES INDEP.	-19.666,42	-64.593,38
624	TRANSPORTES	-24,05	-15,61
62400000	TRANSPORTES	-24,05	-15,61

Cuenta de Pérdidas y Ganancias

		2025	2024
625	PRIMAS DE SEGUROS	-342,89	-323,01
62500000	PRIMAS DE SEGUROS	-342,89	-323,01
626	SERVICIOS BANCARIOS Y SIMILARE	-227,00	-227,60
62600000	SERVICIOS BANCARIOS Y SIMILARE	-227,00	-227,60
628	SUMINISTROS	-2.037,69	-1.908,53
62800000	SUMINISTROS	-2.037,69	-1.908,53
629	OTROS SERVICIOS	-7.620,09	-6.211,88
62900000	OTROS SERVICIOS	-1.594,50	-1.539,60
62900001	GASTO COPIAS IMPRESORA RENTING	-828,29	-723,32
62900003	MATERIAL DE OFICINA	-822,27	-533,64
62900004	LÍMPIEZA OFICINAS	-2.258,64	-2.103,37
62900006	GASTOS CORREOS	-2.116,39	-1.184,54
62900007	GASTOS NO DEDUCIBLES		-127,41
659	OTRAS PÉRDIDAS EN GESTIÓN CORR	-87.590,28	-62.549,64
65900001	GS. GESTIÓN GARAJES GURMENDI	-21.598,38	-16.022,76
65900003	GS. GEST. ALQ.GARAJES GIP.48	-10.690,03	-4.590,31
65900006	GEST.VIVS.SOCIALES ZUBEROA	-50.418,13	-37.389,02
65900007	GASTOS VIVS. ALDAPETA (ALQ.DFG	-4.883,74	-4.547,55
8. Amortización de inmovilizado		-9.580,35	-9.605,89
681	AMORTIZACIÓN DEL INMOVILIZADO	-249,27	-274,81
68100000	AMORTIZACIÓN DEL INMOVIL. MAT.	-249,27	-274,81
682	AMORTIZ. DE INV. INMOBILIARIAS	-9.331,08	-9.331,08
68200000	AMORTIZ. DE INV. INMOBILIARIAS	-9.331,08	-9.331,08
9. Imputación de subven. de inmovilizado no fin.		9.331,08	9.331,08
746	SUBV.,DONA.CAP.TRANSF.RTDO EJ.	9.331,08	9.331,08
74600000	SUBV.,DONA.CAP.TRANSF.RTDO EJ.	9.331,08	9.331,08
12. Otros resultados		-0,40	60.486,76
678	GASTOS EXCEPCIONALES	-0,51	-0,41
67800000	GASTOS EXCEPCIONALES	-0,51	-0,41
778	INGRESOS EXCEPCIONALES	0,11	60.487,17
77800000	INGRESOS EXCEPCIONALES	0,11	60.487,17
A) RESULTADO DE EXPLOTACIÓN		**1.926,45**	**1.581,65**
C) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS		**1.926,45**	**1.581,65**
19. Impuestos sobre beneficios			-41,81
630	IMPUESTO SOBRE BENEFICIOS		-41,81
63000000	IMPUESTO CORRIENTE		-41,81
D) RESULTADO DEL EJERCICIO		**1.926,45**	**1.539,84**

1 -ENPRESAREN JARDUERA

2 - URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

3 - EMAITZEN APLIKAZIOA

4 - ERREGISTRORAKO ETA BALIOESPENERAKO ARAUAK

5 - IBILGETU MATERIALA, UKIEZINA ETA HIGIEZIN ARLOKO INBERTSIOAK

6 - FINANTZA-AKTIBOAK

7 - FINANTZA-PASIBOAK

8 - FONDO PROPIOAK

9 - EGOERA FISKALA

10 - DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

11 - DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA ONDORENGOTZAK

12 - ERAGIKETAK ATXIKIEKIN

13 - BESTELAKO INFORMAZIOA

14 - INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

15 - BEROTEGI-EFEKTUA SORTZEN DUTEN GASEN ESKUBIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA

16 - HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZKO INFORMAZIOA. HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.
UZTAILAREN 5EKO 15/2010 LEGEAREN «INFORMAZIO-BETEBEHARRA»

01 • ENPRESAREN JARDUERA

Memoria honek aipagai duen ZARAUTZ-LUR, SAU Birgaitzeko Hirigintza Sozietatea eta Lurzoru eta Etxebizitzarako Udal Erakundea 2005eko ekainaren 24an eratu zen. Sozietate honen helbide soziala eta fiskala Zigordia kaleko 13 zenbakian dago Zarautzen, 20800 Gipuzkoan. Eratu zenean zeukan Erregimen Juridikoa Pertsona Bakarreko Sozietate Anonimoa zen.

JARDUERA:

Sozietateak honako helburu sozial hau du:

- Zarauzko Udalerriaren hirigintza-planeamendua lantzea, kudeatzea eta horren jarraipena egitea.
- Hirigintza-azterketak egitea, eta horien barruan, antolamendu-planak eta hirigintza-proiektuak idaztea, baita horiek izapidetzeko ekimenak aurrera eramatea ere, onurak eta kargak berdintasunez banatzeko prozesua ere barne hartuz. Halaber, era guztietako eraikuntza-proiektuak idaztea.
- Hirigintza-jarduerak egitea, eta horren barruan, hiri-azpiegiturako obrak sustatzea nahiz egitea eta zerbitzuen zuzkidura sartuko da, antolamendu-planak gauzatu ahal izateko. Horrez gain, ahalmen horretaz baliatuta, lurzorua prestatu eta birmoldatu edo eraberritu ahal izango du, eta Sozietate honen jarduera ez da nahitaez mugatuko babes ofizial edo publikoko etxebizitzen esparrura edo hiri-azpiegiturako obrak eta zerbitzuen zuzkidura egitera, planeamendua gauzatu ahal izateko.
- Desjabetze-espedienteak idazten eta kudeatzen laguntzea, bera onuradun ez denean.
- Hirigintza-planak eta hirigintza-proiektuak edota urbanizazioa gauzatzeak eragiten dituen era guztietako ondasun, obra eta zerbitzuak kudeatzea eta ustiatzea, kasu bakoitzean aplikagarri diren arauekin bat etorriz dagokion emakida erdietsiz gero.
- Etxebizitzak, lokalak eta pabiloiak salerostea eta horien sustapena egitea, eta halaber, etxebizitzetarako lurzatiak edo industriarako lurzati hiritartuak hirugarrengoei eskualdatzea.
- Lurzoruaren Ondare Publikoaren kudeaketa integrala egitea, lursailen merkatua arautuz, ekimen publikoko jardueretarako lurzoru-erreserbak erdietsiz eta planeamendua gauzatu dadila erraztuz.
- Sozietate Anonimoak bere ahalmenak gauzatu ahal izateko beharrezko izan dezaken beste edozein agiri tekniko edo juridiko egitea.
- Gizarte eta hirigintza arloko azterketak egitea eta horien jarraipena egitea.
- Era guztietako eraikuntzen Birgaikuntza Proiektuak idaztea.
- Birgaikuntza-jardueren barruan sartzen diren obrak egitea, eta halaber, Birgaikuntza Plan Bereziak egiteak berarekin dakarren beste edozein obra egitea.
- Lurzoruaren programazioa eta konponketa sustatzea, Birgaikuntza Plan Berezietako zehaztapenak gauzatu ahal izateari begira.
- Arestian aipatutako horiekin zuzenean nahiz zeharka loturik dagoen eta Birgaikuntzarako Hirigintza Sozietateei dagokien beste edozein helburu.

Sozietate honek Zarauzko Udalaren zerbitzu tekniko eta berezko baliabidearen izaera du, eta beraz, enkarguak eman ahal izango zaizkio eta kontratuak esleitu, kasu bakoitzean dagozkion organoek erabakitzen dituzten hitzetan eta baldintzetan.

Sozietateak ezingo du parte hartu Zarauzko Udalak antolatzen dituen lehiaketa-deialdi publikoetan, baina beste eskaintza-egilerik aurkezten ez denean, lehiaketaren xede den prestazioa gauzatu dezala eskatu ahal izango zaio.

Sozietatearen ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da.

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua dago, 2.177 Tomoan, 0 Liburuan, 83 Folioan, SS-25733 Orrian, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak esleitu dion Identifikazio Fiskalaren Zenbakia A20881348 da.

Erregimen orokorra: Kapital Sozietateen Legea, eta uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretu Legegileak onartutako horren Testu Bateratua.

Akzio guzti-guztiak Zarauzko Udalaren jabetzakoak dira. Hori dela eta, honekin batera doazen urteko kontuetan kontabilizatuta ageri diren zenbatekoak Sozietateak bere eragiketak egiten dituen udal testuinguruaren barruan interpretatu behar dira.

02 - URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

1. Irudi leiala:

Urteko Kontuak Konpainiaren kontabilitate-erregistroak abiapuntutzat hartuz prestatu dira, eta azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuan jasotako Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorrarekin bat etorriz aurkeztu dira, eta beraz, Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi leiala eskaintzen digute.

Aurreko ekitaldiko Urteko Kontuak Ohiko Batzar Orokorrak onartu zituen 2025eko maiatzaren 29an.

2. Kontabilitate-printzipioak:

Ez da beharrezkoa izan, eta erakundeko administrazioak ez du komenigarritzat jo merkataritza-kodearen 38. artikuluak eta kontabilitate-plan orokorraren lehen zatiak aipatzen dituen nahitaezkoez gain beste aukerako kontabilitate-printzipio batzuk aplikatzea.

3. Balioespenaren alderdi erabakigarriak eta zalantzari buruzko zenbatespena:

2025 ekitaldiko kontuak prestatu dira funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa kontuan hartuz eta inolako arrisku garrantzitsurik ez delarik antzeman ondorengo ekitaldiko aktibo eta pasiboen balioan eragina izan dazakenik.

Eransten diren urteko pymes kontuetan zenbaitetan zuzendaritzak egindako aurreikuspenak aplikatzen dira zenbatzeko aktiboak, pasiboak, gastuak eta bertan jasotzen diren

konpromezuak.

Ibilgetu materialari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergan finkatutako amortizazio-taulen arabera kalkulatu da bizitza erabilgarria (Ikus 04 oharra-Erregistrorako eta Balioespenerako Arauak, 1. apartatua. Ibilgetu materiala).

2024ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuen prestakuntzan zenbatespen eta hipotesi batzuk finkatu dira, aztertutako gertaerei buruz 2024/12/31n eskuragarri dagoen informazio osatuenaren arabera. Baliteke etorkizunean izan daitezkeen gertaera batzuen ondorioz, hurrengo ekitaldietan horiek aldatzera behartuta egotea (gorantz nahiz beherantz), eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, etorkizuneko urteko kontuetan zenbatespena aldatzeak izan ditzakeen eraginak aitortuta.

4. Informazioaren konparaketa:

Urteko kontuetan, datu hauek ematen dira, alderatu ahal izateko: egoera-balantzearen eta galera eta irabazien partida bakoitzaren 2025ko ekitaldiko kopuruak eta aurreko ekitaldikoak. Gainera, memoria honetan 2025 ekitaldiari buruz ematen den informazioa 2024 ekitaldikoarekin batera ematen da, alderatu ahal izateko.

5. Elementu horiek zenbait kontu-sailetan jaso dira.

Ez dago Aktiboko edo Pasiboko ondare-elementurik, Balantzeko kontu-sail batean baino gehiagotan agertzen denik.

6. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketak

2025eko ekitaldian ez da kontabilitate-irizpideetan aldaketa esanguratsurik gertatu, aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

7. Akatsen zuzenketa

2025eko ekitaldiko Urteko Kontuetan ez da akatsik antzeman.

8. Garrantzi erlatiboa

Memoria honetan finantza-egoeren kontu-sail desberdinei buruz eta beste gai batzuei buruz xehatu beharreko informazioa erabakitzeko orduan, Sozietateak, Kontabilitate Plan Orokorraren Marko Kontzeptualarekin bat etorriz, kontuan izan du 2025eko ekitaldiko urteko kontuekin alderatuta duten garrantzi erlatiboa.

03 - EMAITZEN APLIKAZIOA

1. Jarraian emaitzen banaketarako proposamena zehazten da:

BANAKETARAKO OINARRIA	2025	2024
Galerak eta irabaziak	1.926,45	1.539,84
Guztira	1.926.,5	1.539,84
BANAKETA		
Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko	1.926,45	1.539,84
Banatutakoa guztira	1.926,45	1.539,84

2. Ez da dibidenduen banaketarik izan ekitaldiaren kontura.

3. Ez dago dibidenduen banaketarako mugarik.

4 - ERREGISTRORAKO ETA BALIOESPENERAKO ARAUAK

Kontabilitate-irizpide hauek aplikatu dira:

1. ***Ibilgetu materiala****:*

a) Kostua

Ibilgetu materialaren barruan sartzen diren ondasunak eskurapen-prezioaren arabera edo produkzio-kostuaren arabera zenbatetsi dira, zenbateko horretatik dagozkion amortizazio metatuak eta okerrera egin duela ezagutzen den edozein balio-galera gutxitu ondoren. Eskurapen-prezioaren edo produkzio-kostuaren barruan sartzen dira ondasuna funtzionamenduan jarri arte nahitaez eransten zaizkion gastu gehigarriak.

Handitzeagatik, ordezkatzeagatik edo eraberritzeagatik egon daitezkeen kostuek dagokion ondasunaren bizitza erabilgarria luzatzen dute, eta ibilgetu materialaren zenbateko handiago gisa kontabilizatzen dira, eta horrenbestez, ordezkatutako edo eraberritutako elementuak kontabilitatetik kendu egiten dira. Era berean, mantentze, kontserbazio eta konponketen aldizkako gastuak emaitzei egozten zaizkie, sortzapenaren printzipioari jarraiki, horiek gertatzen diren ekitaldiko kostu gisa.

Ekitaldian ez da gertatu erakundearen Administrazioaren iritziz ibilgetu materialaren handipen, modernizazio edo hobekuntza gisa har daitekeen kontu-sailik.

Sozietateak aktiboko bere ondasunentzat ez du eraisteko, ezabatzeko edo birgaitzeko konpromisorik. Horrexegatik, aktiboen barruan ez da kontabilizatu etorkizuneko obligazio horiek

estaltzeko baliorik.

Bere ibilgetuarentzat ez da enpresako lanik egin.

b) Amortizazioak

Ondasunen bizitza erabilgarriaren eta beren hondar-balioaren arabera sistematikoki eta arrazionalki ezarri dira amortizazioak, beren funtzionamenduagatik, erabileragatik eta gozamenagatik jasan ohi duten balio-galerari erreparatuz, baina halere, horiei eragin diezaiekeen zaharkitze tekniko edo komertziala ere kontuan hartu da. Ibilgetu materialaren elementu baten zati bakoitza modu independentean eta linealki amortizatu da:

	Gehieneko koefizientea	Gehieneko epealdia
Instalazio teknikoak eta makineria	% 15-20	15
Altzariak eta tresnak	% 15	15
Informazioaren prozesaketarako ekipoak	% 33,33	15

c) Finantza-errentamenduak

Hasierako unean, aktibo bat bere izaeraren arabera eta finantza-pasibo bat akuratutako aktiboaren arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira. Eragiketak berezkoak dituen hasierako gastu zuzenak aktiboaren balio handiago bezala hartzen dira. Finantza-karga guztia errentamendu-epean barrena banatzen da, eta galera-irabazien kontuari egozten zaio, benetako interes-tasaren metodoa aplikatuz.

Errentamenduak finantza-errentamendutzat sailkatuko dira baldin eta horien baldintzek jabetzatik datozen arriskuak eta abantailak funtsean errentariari egozten badizkiote. Gainerako errentamenduak errentamendu operatibotzat sailkatzen dira.

Finantza-errentamenduaren erregimenean dauden aktiboen amortizazio-politika ibilgetze material propioei aplikatutakoaren berdina da. Errentamendu-kontratua amaitzen denean errentariak jabetza-titulu hori erdietsiko duela arrazoizko ziurtasunik ez baldin badago, balioetsitako bizitza erabilgarriaren eta errentamendu-kontratuaren iraupenaren artetik laburrena den epealdian amortizatuko da aktiboa.

Aktibo materialen eta ukiezinen balioak okerrera egitea

Ekitaldi bakoitzaren itxiera-datan, enpresak berrikusi egiten ditu bere ibilgetu materialaren liburuetako zenbatekoak, aktibo horiek okerrera egiteagatik balio-gutxipena izan dutela dioen zantzurik badagoen egiaztatzeko. Horrelako zantzuren bat baldin badago, dagokion aktiboaren zenbateko berreskuragarriari buruzko estimazio bat egiten da beharrezko balio-galeraren zenbatekoa zein den erabakitzeko. Ibilgetu materialaren elementu hauek okerrera egin izanari buruzko kalkuluak elementuz elementu egiten dira banakaturik.

Okerrera egiteagatik izandako balio-zuzenketak gastutzat hartzen dira galera-irabazien kontuan.

Aurreko ekitaldietan aktibo material batek okerrera egiteagatik izandako galerak itzuli egingo dira horien zenbateko berreskuragarriaren gaineko estimazioetan aldaketaren bat gertatzen bada, eta aktiboaren balioa igo egingo da emaitzetan ordainduz, okerrera egin ez balu aktiboak liburuetan izango lukeen balioaren mugaraino.

2. *Higiezin arloko inbertsioak:*

Sozietateak honela sailkatzen ditu higiezinetako inbertsioak: higiezinak diren aktibo ez-korrienteak —errentak, plusbalioak edo biak lortzeko dituenak, eta ez ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo horniduran erabiltzeko, edo administrazio-xedeetarako, edo eragiketen bide arruntean saltzeko—. Bai eta Sozietatearen ondarean sartzeko unean etorkizuneko erabilera zehaztuta ez duten lurrak eta eraikinak ere. Ondasun higiezinetako inbertsioak baloratzeko, lurretan eta eraikuntzetan, ibilgetu materialaren irizpideak erabiltzen dira. Honako hauek dira:

Eraiki gabeko orubeak honela baloratzen dira: erosketa-prezioa gehi egokitzapen-gastuak; hala nola, itxiturak, lur-mugimenduak, saneamendu- eta drainatze-obrak, eraikinak eraisteko gastuak (oin berriko obrak egin ahal izateko beharrezkoa denean), ikuskapen-gastuak eta planoak egiteko gastuak (horiek erosi aurretik egiten direnean), eta orubea birgaitzeko kostuetatik eratorritako betebeharren egungo balioaren hasierako kalkulua

Eraikuntzak hauen arabera baloratzen dira: erosketa-prezioa edo ekoizpen-kostua (hor sartzen dira iraunkortzat jotzen diren instalazioak eta elementuak ere), eraikuntzari lotutako tasak, eta proiektuaren eta obra-zuzendaritzaren teknikarien ordainsariak. Lurraren eta eraikinaren baterako errentamenduak operatibo edo finantzario gisa sailkatuko dira, bestelako aktiboen errentamenduen irizpide berberekin.

Hala ere, lurrak bizitza ekonomiko mugagabea izan ohi duenez, baterako errentamendu finantzario batean, lurraren eta eraikinaren osagaiak bereizita hartuko dira kontuan; lurrari dagokiona, errentamendu operatibo gisa sailkatuko da; ez, ordea, errentamendu-aldiaren bukaeran errentariak jabetza eskuratzea espero bada.

Ondorio horietarako, errentamenduaren gutxieneko ordainketak lurraren eta eraikinaren artean banatuko dira, bi osagaien errentamendu-eskubideek adierazten dituzten arrazoizko balio erlatiboen proportzioan, banaketa hori fidagarria ez denean izan ezik; kasu horretan, errentamendu guztia errentamendu finantzario gisa sailkatuko da, argi eta garbi ez badago, behintzat, operatiboa dela.

3. *Trukeak:*

Ekitaldian ez da gauzatu merkataritza izaera duen edo merkataritza izaera ez duen inolako trukerik.

4. *Finantza-tresnak:*

Sozietateak tresna finantzarioen kapituluan erregistratuta ditu enpresa batean aktibo finantzario bat eta, aldi berean, beste enpresa batean pasibo finantzario bat edo ondare-tresna bat sortzen duten kontratuak. Honako tresna finantzario hauei aplikatuko zaie arau hau:

a) Aktibo finantzarioak:

a. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.
b. Merkataritza-eragiketengatiko kredituak: hainbat bezero eta zordun;
c. Hirugarrenentzako kredituak: esaterako, emandako mailegu eta kreditu finantzarioak, aktibo ez-korronteen salmentatik sortutakoak barne.
d. Eskuratutako beste enpresa batzuen zorra adierazten duten baloreak: hala nola obligazioak, bonuak eta ordaindukoak;

e. Eskuratutako beste enpresa batzuen ondare-tresnak: akzioak, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak eta beste ondare-tresna batzuk;
f. Enpresarentzat aldeko balorazioa duten deribatuak: besteak beste, gerokoak, aukerak, finantza-trukaketak eta atzerri-monetaren eperako salerosketa, eta
g. Beste aktibo finantzario batzuk: hala nola kreditu-erakundeetako gordailuak, langileei emandako aurrerakinak eta kredituak, eratutako fidantzak eta gordailuak, kobratzeko dibidenduak eta ondare propioko tresnen gainean eskatutako ordainketak.

b) Pasibo finantzarioak

a. Merkataritza-eragiketek sortutako zorrak: hornitzaileak eta hartzekodunak;
b. Kreditu-erakundeekiko zorrak;
c. Jaulkitako obligazioak eta beste balore negoziagarri batzuk: hala nola bonuak eta ordaindukoak.
d. Enpresarentzat kontrako balorazioa duten deribatuak: besteak beste, gerokoak, aukerak, finantza-trukaketak eta atzerri-monetaren eperako salerosketa;
e. Ezaugarri bereziak dituzten zorrak, eta
f. Beste pasibo finantzario batzuk: hirugarrenekiko zorrak, hala nola kreditu-erakunde ez diren pertsonengandik edo enpresetatik jasotako mailegu eta kreditu finantzarioak, bai eta aktibo ez-korronteen erosketan sortutakoak, jasotako fidantza eta gordailuak, eta hirugarrenek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak.

c) Ondare propioko tresnak: funts propioen barruan sartzen diren tresna finantzario guztiak, hala nola jaulkitako akzio arruntak.

4.1. Epe luzeko eta motzeko inbertsio finantzarioak

Maileguak eta kobratu beharreko kontuak: horien kostu amortizatua erregistratzen da; maileguen kasuan, emandako eskudirua da (printzipalaren itzulketak kenduta eta sortutako eta kobratu gabeko interesak gehituta); eta kobratu beharreko kontuen kasuan, berriz, egindako kontraprestazioaren balio eguneratua. Sozietateak dagozkion narriadurak erregistratzen ditu, honako hauen artean dagoen aldeagatik: kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoa eta erregistro-liburuetan horiek duten balioa.

Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak: zorra adierazten duten baloreen mozkinak, mugaeguna finkatuta dutenak, zenbateko zehatzeko edo zehazgarriko kobrantzak, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta sozietateak mugaegunera arte gorde nahi eta ahal dituenak. Horien kostu amortizatua kontabilizatzen da.

Taldeko enpresetan, enpresa elkartuetan eta talde anitzekoetan egindako inbertsioak.

Inbertsio salgarriak: aurreko lau kategorietan sartzen ez diren gainerako inbertsioak dira. Ia inbertsio guztiak kapitaleko inbertsio finantzarioak dira, % 20tik beherako inbertsioarekin. Inbertsio horiek erantsitako egoera-balantzean agertzen dira, horien arrazoizko balioan, fidagarritasunez zehaztu daitekeenean. Kotizatu gabeko sozietateetako partaidetzen kasuan, normalean merkatuko balioa ezin da modu fidagarrian zehaztu; beraz, hori gertatzen denean, erosketa-kostuaren arabera baloratzen dira, edo zenbateko txikiago baten arabera, narriaduraren ebidentziarik badago.

4.2. Pasibo finantzarioak

Maileguak, obligazioak eta antzekoak, hasieran, jasotako zenbatekoan erregistratzen dira,

transakzioan egindako kostuetatik garbi. Gastu finantzarioak —likidazioan edo errenboltsoan ordaindu beharreko primak eta transakzio-kostuak barne— galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, sortzapenaren irizpidearen arabera, interes efektiboaren metodoa erabiliz. Sortutako eta likidatu gabeko zenbatekoa tresnaren zenbateko gordinari gehitzen zaio, sortzen diren aldian likidatzen ez diren neurrian.

Ordaindu beharreko kontuak, hasieran, merkatu-kostuan erregistratzen dira, eta, ondoren, kostu amortizatuan baloratzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa erabilita.

4.3. Taldeko enpresetan, talde anitzekoetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak.

Taldeko enpresetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, hasieran, kostuaren arabera baloratzen dira, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi transakzio-kostuak.

Ekitaldi-itxieran, gutxienez, sozietateak inbertsioetan balio-narriadurarik izan den ebaluatzen du. Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak eta, hala badagokio, lehengoratzeak, gastu edo sarrera gisa eramaten dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan.

Narriaduragatiko zuzenketa aplikatuko da, objektiboki ikusten bada inbertsio batek liburuetan duen balioa ez dela berreskuragarria izango. Honako hau hartzen da balio berreskuragarritzat: batetik, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuaren eta, bestetik, inbertsiotik eratorritako etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratuaren arteko zenbateko handiena; fluxuak honela kalkulatuko dira: enpresa partaidetuak egindako dibidendu-banaketaren ondorioz eta inbertsioaren beraren kontuak besterentzearen edo horien bajaren ondorioz jasotzea espero dena kalkulatuz, edo enpresa partaidetuak sortzea espero den diru-fluxuetan duen partaidetza kalkulatuz. Zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia hoberik ezean, erakunde partaidetuaren ondare garbia hartuko da kontuan, balorazio-datan dauden gainbalio tazituekin zuzenduta.

Pasibo finantzarioak eta ondare-tresnak hitzartutako kontratu-akordioen edukiaren arabera eta funts ekonomikoa kontuan hartuta sailkatzen dira. Ondare-tresna bat kontratu bat da, taldearen ondarean pasibo guztiak kendu ondoren hondar-partaidetza bat adierazten duena.

4.4. Arrazoizko balioa

Zer da arrazoizko balioa? Aktibo bat saltzeagatik jasotzen den prezioa, edo pasibo bat transferitzeko edo kitatzeko ordaintzen dena, balorazio-datan merkatuan partaideen artean egindako transakzio ordenatu baten bidez. Arrazoizko balioa zehazteko ez da inolako kenkaririk egin behar transakzio-kostuengatik (besterentzeak edo beste bitarteko batzuk erabiltzeak eragindakoak). Ez da inondik ere arrazoizko baliotzat hartuko behartutako, premiazko edo nahigabeko likidazio-egoera baten ondorioz egindako transakzio baten emaitza.

Oro har, finantza-tresnak arrazoizko balioaren arabera baloratzeko, Sozietateak arrazoizko balio hori merkatuko balio fidagarri baten arabera kalkulatzen du; horren arabera, arrazoizko balioaren erreferentziarik onena, berez, merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da. Merkatu aktiborik ez duten tresnen kasuan, balorazio eredu eta teknikak aplikatuz lortzen da arrazoizko balioa. Halakoetan, onartuta dago merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituen eta zorren liburuetan azaltzen den balioa eta horien arrazoizko balioa antzekoak direla.

5. Izakinak:

Izakinak eskurapen-prezioaren arabera edo produkzio-kostuaren arabera balioetsiak daude. Urtebete baino denbora-epe luzeagoa behar badute salduak izateko moduan egoteko,

balio horren barruan dagozkion finantza-gastuak sartuko dira.

Balio garbi egingarria horren eskurapen-prezioa edo produkzio-kostua baino txikiagoa denean, dagozkion balioespen-zuzenketak egingo dira.

Balio garbi egingarria, hain zuzen ere, salmenta-prezioaren balioespena izango da, amaierako kostu estimatu guztiak eta merkaturatze, salmenta eta banaketaren prozesuetan beharrezkoak izango diren kostu estimatuak kenduta.

Sozietateak ekitaldiaren amaieran dauden izakinen balio garbi egingarriaren ebaluazio bat egiten du, dagokion galera egotziz, horiek neurriz gain balioetsi badira.

Aldez aurretik balio-gutxitze bat eragin zuten xehetasunek izateari uzten diotenean edo, egoera ekonomikoak aldatu direlako balio garbi egingarrian gehikuntza bat izan dela dioten zantzu garbiak daudenean, balio-gutxitze horren zenbatekoa lehengoratzeari ekiten zaio.

6. Transakzioak atzerriko diruan:

Atzerriko diruan ez da transakziorik egin.

7. Mozkinen gaineko zerga:

Mozkinen gaineko zergagatik izandako gastua, beraz, ekitaldian mozkinen gaineko zergagatik nola aurreratutako zergengatik, geroratuengatik eta zerga-kredituengatik aktiboek eta pasiboek izandako eraginagatik izandako gastuaren batura da.

Ekitaldiko mozkinen gaineko zergagatik izandako gastua, hain zuzen ere, ekitaldiko zerga-oinarriaren gaineko karga mota aplikatuz lortzen den zerga arruntaren baturaren bidez kalkulatzen da, Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 39.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz zuzendu ondoren, izan ere, lurralde, udal eta probintzietako toki-erakundeen eskumenei buruzko Toki Araubideko Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.

artikuluaren 2. apartatuan jasotako zerbitzuak eskaintzeagatik datozen errentei aplikatzen baitzaie, zerga arloan onargarri diren kenkariak aplikatu ondoren. Aurreko emaitza horri zerga aurreratuengatik / geroratuengatik eta zerga-kredituengatik aktiboek eta pasiboek izandako aldaketa gehituko zaie, bai zerga-oinarri negatiboengatik eta bai kenkariengatik ere.

Zerga geroratuengatik izandako aktibo eta pasiboetan sartzen dira aktiboek eta pasiboek liburuetan duten zenbatekoaren eta beren zerga-balioaren arteko aldeengatik ordaintzekoak edo berreskuragarriak direla aurreikusten diren zenbateko gisa identifikatutako aldi baterako aldeak, baita konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboak eta zerga alorrean aplikatu gabeko zerga-kenkariengatiko kredituak ere.

Dagokion denbora-aldeari edo kredituari horiek berreskuratzea edo likidatzea espero den karga-tasa aplikatuz erregistratuko dira zenbateko horiek.

Denbora-alde ezargarri guztietarako pasibo batzuk aitortzen dira zerga geroratuengatik. Beste alde batetik, zerga geroratuengatik sortutako aktiboak, denbora-aldeekin identifikatuak, zerga-oinarri negatiboak eta konpentsatzeko dauden kenkariak, horiei erantzun ahal izateko Sozietateak etorkizunean nahikoa zerga-irabazi eduki lezakeela joz gero bakarrik aitortuko dira.

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, berrikusi egiten dira erregistratutako zerga geroratuak, bai aktiboak eta bai pasiboak ere, horiek indarrean irauten dutela egiaztatzeko asmoz, eta horietan egoki diren zuzenketak egiten dira, egindako analisien emaitzekin bat etorriz.

8. Diru-sarrerak eta gastuak: enpresak egindako zerbitzuen prestazioak.

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira, horietatik eratorritako korronte monetarioa edo finantzarioa noiz gertatzen den kontuan izan gabe.

Hala ere, sozietateak, soilik, ekitaldiaren itxiera-datan egindako mozkinak kontabilizatzen ditu; izan ere, aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, behin-behinekoak izan arren, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

Ondasunak edo zerbitzuak saltzeagatik lortutako diru-sarrerak jasotako edo haietatik jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioan kontabilizatzen dira. Goiz ordaintzeagatiko deskontuak, bolumenagatiko deskontuak edo bestelako deskontuak, baita kredituen nominalari gehitutako interesak ere, horien minorazio gisa erregistratzen dira. Hala ere, Sozietateak hemen sartzen ditu urtebetetik beherako epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten kreditu komertzialei erantsitako interesak, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez bada.

Bezeroei emandako deskontuak horien emakida-baldintzak ustez beteko diren unean aitortuko dira, salmentengatiko diru-sarreren murrizketatzat hartuta.

Etorkizuneko salmenten konturako aurrerakinak jasotako balioaren arabera baloratzen dira.

9. Hornidurak eta kontingentziak:

